

## **GEHIGARRIA, EUSKO JAURLARITZAREN ETA FLANDRIAKO GOBERNUAREN ARTEKO 2015EKO EKAINAREN 1EKO ASMO ADIERAZPENARENA**

### **PARTE-HARTZAILEAK**

**FLANDRIAKO GOBERNUA**, egoitza Bruselan duena (Martelaarsplein, 7), eta Philippe Muyters jaunak, Enplegu, Ekonomia, Berrikuntza eta Kiroleko Ministroa, legez ordezkaturia.

### **ETA**

**EUSKO JAURLARITZA**, egoitza Vitoria-Gasteizen duena (Donostia – San Sebastián, 1) eta Beatriz Artolazabal Albeniz andreak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburua, legez ordezkaturia.

### **ATARIKOA ETA PREMISAK**

Kontuan izanik Flandriako Gobernuko ministro-presidenteak, Geert Bourgeois jaunak, eta Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, Iñigo Urkullu jaunak, Asmo Adierazpen bat sinatu zutela 2015eko ekainaren 1ean, alde biko harremanak sendotzeko eta areagotzeko, Flandriaren eta Euskadiren artean ahalik eta lankidetzaren maila zabalena ezartzeko.

Kontuan izanik esandako Asmo Adierazpen horren helburuen artean, honako hauek ageri direla: lehendik diren harremanak sendotzea eta areagotzea, jardunbide egokien politikak trukitzea, lankidetzaren aukera berriak arakitzea, eta baterako proiektuen sustapena garatzea, lan-merkatuan eta tankerako alorretan.

Kontuan izanik Flandriak eta Euskadik tankera bereko erronkak dituztela, hala nola automatizazioaren inpaktua eta adimen artifiziala, biek ere ziurrenik lan-merkatuko trantsizioak ugarituko dituzten aldetik.

Kontuan izanik Flandriako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak biek dutela interesa jardunbide egokiak trukatzeko okupazio- eta enplegu-politiken esparruan, sektore publikoak enpleguaren eta plangintza estrategikoaren alde sustatutako politikak mamitzeko, baita enplegu-politika aktiboen eta lan-bitartekaritzaren alorreko diseinuan eta gidalerroetan ere.

Kontuan izanik Eusko Jaurlaritzaren eskumenen artean ageri dela enplegu-politika, baita enplegurako lanbide-heziketa ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankidetzarekin, haren erantzukizunen esparruan.

Dela *Vlaamse Dienst voor Arbeidsbemiddeling en Beroepsopleiding (VDAB)*, dela *Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua* okupazio-zerbitzu publikoak dira, eta lan-merkatuko eragile askotarikoen arteko lankidetzak sustatzen eta kudeatzen dituzte, funtzionamendua hobetzeko eta, hala, pertsonak euren lan-bizitzan gauzatzen dituzten trantsizioei bide egiteko.

Kontuan izanik Flandriako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritza, baita *Vlaamse Dienst voor Arbeidsbemiddeling en Beroepsopleiding (VDAB)* eta *Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua* ere, erabat konprometiturik daudela eredu egoki bat sustatzeko egitekoan, zeinaren oinarria izango baita okupazio-zerbitzu publikoen gaitasuna lortzea.

Flandriako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ulertzen dute egokia dela bi gobernuok 2015eko ekainaren 1ean sinatutako Asmo Aitorpenari gehigarri bat eranstea, jardunbide egokiak trukatzeko okupazioaren, enplegurako lanbide-heziketaren eta elkarren arteko kanal iraunkorren esparruan.

**AURREKOA KONTUAN HARTUTA,  
HONAKO HAU HITZARTZEN ETA ADIERAZTEN DA:**

- I. Hitzaurrea eta premisak gehigarri honetako zati dira.
- II. Gehigarri honetako parte-hartzaileek konpromisoa hartzen dute enplegu-politiken esparruan jardunbide egokiak eta ikaskuntza erkidea sustatzeko. Zehazki:
  - a) okupazio-politikekin eta enplegurako lanbide-heziketekin lotutako esperientzien trukeari bide eginez;
  - b) etengabeko lankidetzak sortuz bi gobernuen artean; horretarako, azterlan-bisitak, lantaldeak, gaikako konferentziak eta trukerako eta eztabaidarako bestelako aukerak antolatuz;
  - c) lurralde-esparru bakoitzean gai horiekin jarduten duten erakunde interesatuak inplikatur, gehigarri honekin lotutako proiektuetan eta jardueretan esku har dezaten.
- III. Parte-hartzaileek lankidetzan jardungo dute eredu egoki bat ezartzeko, okupazioko zerbitzu publikoen barruko eskumenetan oinarrituta.
- IV. Parte-hartzaileek lankidetzan jardungo dute, lan-merkatuaren beharrianak aurreratzeko eta okupazio-zerbitzu publikoetan berrikuntza estimulatzeko.
- V. Parte-hartzaileek konpromisoa hartzen dute elkarrekin talde bat sortzeko, lankidetzarako bestelako eduki espezifikoak definitzeko.
- VI. Zehazki, parte-hartzaileek erreminta digitalen trukea sustatuko dute, eskaintza eta eskaria harmonizatze eta prozedurak sinplifikatzeko modu orokorrago bat topatzeko.

- VII. Sinatzaileak izango dira gehigarri honekin lotutako gastuen arduradun, baita aurreikusitako jardueren garapenen arduradun ere. Parte-hartzen duten pertsonak sorraraz ditzaketen gastuak lotuta egongo dira urteko ohiko aurrekontu-baliagarritasunera, eta indarrean den legeria errespetatuko dute.
- VIII. Gehigarri hau Nazioarteko Akordio ez-arautzaile bat da, eta ez du sortzen obligazio juridikorik estatuentzat, nazioarteko esparruan.
- IX. Sinatzaileak partekatutako informazio, agiri eta datu pertsonalen konfidentzialtasuna errespetatzera behartzen dira. Informazio honen erabilera mugatua izatekotan edo hornitu zen helbururako ez erabiltzekotan edo hirugarren batekin partekatu nahi izatekotan, aldezturik informazioa eman zuen parte-hartzailearen onespena derrigorrezkoa izango da.
- X. Gehigarri hau parte-hartzaileek sinatzen duten datan jarriko da indarrean.

Aurreko guztia kontuan hartuta, bi sinatzaileek gehigarri hau sinatu dute 2019ko Apirilaren 8an, nederlanderaz, gaztelaniaz eta euskaraz, eta hiru testuak izango dira autentiko.


Flandriako Gobernuaren aldetik



---

Philippe Muyters

Eusko Jaurlaritzaren aldetik



---

Beatriz Artolazabal